

**THE ROYAL HOTEL • Australia**

Kitty Green (zuzendaria)

SERGIO BASURKO

The Royal Hotel Kanadako Hanna eta Liv bi motxilero ditu protagonista, eta kontatzen digu nola Australiako *out-back*eko meatze-herri bateko taberna-zulo batean lan egitea onartzen duten, diru pixka bat irabazteko eta bidaiarekin jarraitzeko. Legerik gabeko eremu bat da, non babesik gabe eta gutxietsita egongo diren emakume eta gazte izateagatik, eta beren burua defendatzen dakitela erakustea beste erremediorik ez zaie geratuko.

Prentsaurrekoan zuzendariak azaldu duenez, “thrillerretan bi emakume gazte horrelako egoera batean ikusten ditugunean, hil egingo dituztela pentsatzen dugu”, eta aurrez ezarritako ideia horrekin jolastu nahi izan duela gaineratu du: “Nahikoa indarkeria ikusi dugu zinema-pantailetan emakumeen aurka, eta zerbait desberdina nahi nuen, jokabide matxista hori sexu- eta genero-indarkeriarako sarbidea dela erakutsiz”.

Filmak beldurrezko zinemarekin bat egiten du, baina Greenek azaldu du ez zuela generoari bere horretan heldu nahi: “Australiako eguzkiak gogor jotzen du, argitasun handia du, eta kontrastean tabernaren barrualdean beste muturra esploratzen saiatu gara, atmosfera iluna eta tentsioduna sortzeko. Pelikulan denak tentsioa sortzen du, ikuslea bi neskak noiz hilko, noiz akatuko dituzten zain egon dadin”, azaldu du, eta zehaztu du “beldurrezko generoan topiko asko daude, eta nik hortik atera nahi dut. Genero honetan emakumeak ez dira inoiz heroi gisa tratatu”. Horren aurrean, Green ikusleen “espektatibekin jolasten eta generoaren leloak saihesten” saiatu da, “heroi horien defentsan”. “Jendeari esan nahi diogu horrelako filmak egiteko beste modu bat dagoela, eta emakumeak indartsuak direla”, zehaztu du.

Australiako alkoholaren kulturaz ere aritu da zuzendaria. Izan ere,



Kitty Green zuzendariak proposamen ausarta aurkeztu du Sail Ofizialean.

PABLO GÓMEZ

Kitty Green: “Beldurrezko zinema emakumeen alde iraultzen saiatu naiz”

filmak botila bat edo norbait edaten ikusten ez den plano gutxi ditu; eta, alkoholaren kontuarekin lotuta, filma ikustean australiarrek izan dezaketen erreakzioaren aurrean, Greenek azaldu du Adelaidan filmatu zutela, “batez ere bertako aktoreekin, oso jende jator eta xarmantekin. Uste dut pelikulan ez dela indarkeria bakarrik ikusten...”. Agertokia ere izan du hizpide Greenek, bere jaioterriko Australiaren edertasuna eta paisaia idor hori filmean integratzeko modua: “Neure buruari esan nion: nola kontatu dezaket Australiako kulturari buruzko istorio

ilun hau eta nola erakuts dezaket aldi berean herrialdearen edertasuna? Portaera iluneko mikrokosmos batzuk daude; urruneko meatze-herri hautsezatatu batean gaude; eta egin behar zena egitura bat aurkitzea zen, taberna, eta elementu horiek guztiak batzea. Neskentzako bidaia bat antolatu eta Australiako paisaiaren edertasuna erakustea, kontatzea merezi baitu”. Amaitzeko, Julia Gardner (Hanna, motxileroetako bat eta *Ozark* telesailako antzezle ezaguna) aipatu du, *The Assistant* bere estreinako film luzean ere parte hartu zuena. “Uste dut ekarpen handia egiten diola per-

tsionariari, haren garapenari. Tabernara iristen denean, berak ez du han egon nahi, argi eta garbi esaten du, eta lehen eszenetan ondo pasatzen badakiela erakutsi nahi genuen. Gaztea zarenean eta bidaiatzen duzunean, dirua administratzeaz arduratzen den eta erne dagoen pertsona bat egoten da, eta besteek ondo pasatzen dute. Juliak oso begi liluraberak ditu, asko transmititzen du oso gutxiarekin”.

Beste proiekturen bat buruan ote duen galdetuta, Greenek erantzun du “emakumeen istorioak kontatzen jarraitzea” gustatuko litzaiokeela, “ni ere emakumea bainaz”.

Playing around with genre and audience expectations in the Outback

Australian director Kitty Green is competing for the Golden Shell with *The Royal Hotel*, a film about two American backpackers who take a job in a remote Australian pub to earn a bit of extra cash. At a press conference Green explained how, “often when you see two young women in a film in the middle of nowhere you think something bad is going to happen, but we wanted to subvert this trope and play around with genre and audience expectations, to create a narrative about strength and women finding themselves in a rite of passage.”

As for what the reaction of the average Aussie male would be to her film, she said that the lack of overt violence might make them uncomfortable as this is what they are waiting for and when it doesn't come, they're forced to look at their own behaviour. In any case she thinks that, “we've seen enough violence against women on screen,” and her goal was to achieve a different way of showing women being strong in the Outback. She also declared that she wanted to highlight the magnificent landscape of her native country while showing microcosms of dark behaviour that she didn't agree with.



San Telmo Museoa

EUSKAL GIZARTEA ATZO. EUSKAL GIZARTEA GAUR
LA SOCIEDAD VASCA DE AYER. LA SOCIEDAD VASCA DE HOY

LA SOCIÉTÉ BASQUE D'HIER.
LA SOCIÉTÉ BASQUE D'AUJOURD'HUI.

THE BASQUE SOCIETY OF THE PAST.
THE BASQUE SOCIETY OF THE PRESENT.

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus

@santelmomuseoa
Instagram Facebook Twitter YouTube

STM
San Telmo Museoa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostia
kultura